

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Produktu hau sortu ahal izateko, beharrezkoak izango dira; pertsona kualifikatuak eta kapitala sartzen dutenak. Kualifikatuen artetik, ingeniariak, marketing-a eramatean dutenak, bezeroekin harremana edukitzen dutenak, garraiolariak eta instalatzaileak.

Ingeniararien artean, elektronikoak, informatikoak eta diseinatzaileak sartuko ziren. Diseinatzaileak, gure sentsoak eta txartelak izango duten egituraz arduratuko dira. Elektronikoak, diseinatzaileak egindako diseinuaz baliaturik produktua sortuko dute. Informatikoak berriz, mugikorreko aplikazioa sortuko dute. Gainera, mugikor guztientzat baliagarria izango da.

Marketing-en aldetik, publizitatea beharrezkoa izango da gure produktua bezeroen eskuetara heltzeko. Bezeroekin ere harreman zuzena eduki behar dugu. Inkesta eginaz, nahiz telefonoz, nahiz kaletik, nahiz posta elektronikoz. Produktua merkatura irten aurretik arrakasta izango duen jakiteko.

Garraiolariak, gure dendetara produktuak eramateaz gain gure produktuak supermerkatu handietara heldu daitezten ardura hartuko dute. Gainera, harremana dugun beste enpresa batzuekin materiala partekatzeaz arduratuko dira.

Hauetaz aparte, instalatzaileak beharko ditugu. Etxeetako, ikastetxeetako, ospitaleetako, karteletako, supermerkatuetako... atean sentsoak txertatuko dituztenak.

Guzti hauek ezinbestekoak izango dira gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Guztion lankidetasuna eta parte-hartzea beharrezkoa izango da. Baita gure artean komunikatzen jakitea errespetua guztiaren gainetik dagoela azpimarratuz. Guztion artean kate bat osatuko dugu eta kate hau apurtu ez dadin gogor lan egin beharko dugu. Batek kale egin ez gero arazoak sortuko dituelako proiektuaren sorkuntzan.

Harreman honek *cuello de botella* ez sortzea lagunduko digu. Adibidez, diseinatzaileak ideia gabe gelditzen badira eta horren ondorioz beste atalak geldi badaude, ingeniari elektroniko batek lagundu ahalko zion produkzioa gelditu ez zedin. Edo beste bide, bat lana partekatzea izango litzateke. Hauek ere diseinuaz zerbait jakingo dutelako.